



EUSKAL IRITZI PUBLIKOAREN URTEKARIA 2012

Prensa oharra

Eusko Jaurlaritzako **Prospekzio Soziologikoen Kabineteak Euskal iritzi publikoaren urtekaria argitaratu du**. Bertan biltzen dira 2012an zehar egindako iritzi publikoari buruzko ikerketetan jasotako daturik esanguratsuenak. Argitalpen honen **helburua** da herritarren eskura jartzea iaz herritar horien lagin adierazgarri bati egindako kontsulta sistematikoen bidez jasotako datuak. Guztira, ia 20.000 elkarrizketatan jasotako informazioa biltzen da.

Informazioa lau atal nagusitan antolatu da: Gizartea, Erakundeak eta gestio publikoa, Iritzi politikoa eta Ekonomia.

2012a 12 datutan

Ondoko 12 datuok 2012ko euskal iritzi publikoaren ikuspegi bat eskaintzen digute:

1.- **ETAk bere jarduera armatuari uko** egin eta lau hilabetera, herritarren artean gehien zabalduko sentsazioak baikortasuna eta ilusioa ziren; 1999an hasitako bilduma guztiko punturik altuena harrapatu dute.

2.- **Hauteskunde Autonomikoetan** botoa eman zutenen %32k kanpainan, hauteskunde egunaren bezperan edo egunean bertan erabaki zuten botoa nori eman.

3.- **Espainiako Estatuaren lurralde antolaketa**ri dagokionez, urrian EAeko herritarren %52k esan zuten nahiago luketela erkidegoek autonomia handiagoa edo independentziarako aukera izango luketen estatu bat, %32k gaur egungoa bezalako estatu eta %7k erkidegoek autonomia gutxiago luketena edo estatu zentralizatua.

4.- EAeko herritarren %31k parte hartu dute grebaren batean, %29k baimendutako manifestazioen batean, %26k eskaera aldarrikatzaileraren bat sinatu dute eta %21ek produktu jakin batzuk erosi dituzte arrazoi politiko, etiko edo ingurumenekoengatik. Oro har, azken lau urteotan nabarmen handitu da **ekimen sozial eta politikoetan parte hartu** duten herritarren kopurua.

5.- Herritarren %69 ez daude pozik gure **demokraziaren funtzionamenduarekin**. 2002an hasitako bilduman neurtutako poztasun mailarik baxuena da eta Europar Batasuneko herrialdeen artean eskasenetakoa.

6.- Jendearen **kezka nagusien** artean goia jo dute lan merkatuarekin lotutako arazoek eta arazo ekonomikoek. Ekaineko neurketan hurrenez hurren herritarren %80k eta %40k aipatu zituzten arazo horiek EAeko hiru arazo nagusien artean.

7.- Herritarrek espektatiba ezkorrak adierazi dituzte **ongizate politiken etorkizunarekiko**: %44k uste dute Euskadin okerrago egingo direla eta %38k mantendu egingo direla. Espainiari buruzko iritzia are okerragoa da.

8.- **Gastu publikoaren** banaketan, jendeak osasungintzari ematen dio lehentasuna. %46k hori aipatu dute murrizketarik inolaz ere onartuko ez luketen arlotzat.

9.- EAEn **iruzur fiskal** handia edo dezentekoa dagoela diote biztanleen %69k eta pertzepzio hori areagotzen ari da azken urteotan. Herritarren %81ek ez dute uste gehien dutenek zerga gehiago ordaintzen dituztenik.

10.- EAeko biztanleen %77k diote ez dutela (beste) **seme-alabarik izango**. 2001ean %56k zioten hori bera.

11.- **Erlijio sinesmenei** dagokienez, beren burua katoliko ez praktikantetzat dute herritarren %47k, katoliko praktikante %26k, ateo edo agnostiko %25ek eta beste erlijio bateko sinestunak dira %2.

12.- **Sare sozialen** erabilzaileen artean (herritarren %30), gehienek uste dute (%64k) sare sozialek ez dutela argi azaltzen beren datu pertsonalen zein erabilera egingo duten.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago: www.euskadi.net/ikerketak_sociologikoak